

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

**ANIMALIAK EDUKITZEKO ETA BABESTEKO
UDAL-ORDENANTZAREN ALDAKETAREN ONARPENARI
BURUZKO ESPEDIENTEA**


Aurreko onarpena: Osoko Bilkura 15.03.24.

BAOn argitaraketa: [64 zk. 15.04.07koa.](#)

Jendeaurreko erakusketa apearen azken eguna: 15.05.13.

Alegazioak: Ez.

Argitarapen orokorra: [BAOn 95 zk. 15.05.21ekoa.](#)



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

**I. TITULUA:
HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA**

1.- artikulua


1. Ordenantza hau ondorengo legeek Udalari atxikitako konpetentzien arabera egin da: Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen Legea; Abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeari buruzko Araubide Juridikoarena; Urriak 29ko Euskal Autonomia Erkidegoko 6/1993 Legea, Animaliak babesteari buruzkoa; 101/2004 Dekretua, ekainaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzkoa; eta aplikazio orokorreko garapeneko beste zenbait xedapen.
2. Ordenantza honen xedea da, etxe-abereak etxekotutako abereak babestu eta edukitzeko arauak ezartzea, abereen eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzeko asmoz.

Ordenantza honen aplikazio-eremua Durangoko udalerrria da, abereok bertan erroldatutakoak izan ala ez, bertan erregistratutakoak izan ala ez, eta animalion jabeen edo edukitzaileen bizilekua edozein dela ere.

2. artikulua – DEFINIZIOAK

Ordenantza honen aplikazioaren ondorioetarako, ondorengo definizio hauek finkatu dira:

1. Etxe-animaliatzat hartuko dira bizirik irauteko ezinbestean gizakiaren laguntza behar dutenak.
2. Etxekotutako animaliatzat hartuko dira, basati eta aske jaio izanagatik, gizakiak ikustera eta gizakiokin egotera ohituta daudenak, eta bizirik irauteko ezinbestean gizakiaren laguntza behar dutenak.
3. Bakartuta hazitako animalia basatitzat hartuko dira, basati jaio izanagatik, gatibualdiko baldintzapean bizi izan direnak, eta ez, gero etxekotuak izan daitezen, irakatsiak izan direnak.
4. Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira:
 - a) Animalia basatiak izan eta etxe-animaliatzat eta konpainiako animaliatzat erabilitakoak, edozein dela ere haien agresibitatea, eta pertsoneri edo beste animalia batzuei min emateko edo hiltzeko eta gauzak kaltetzeko gai diren animalia espezieak edo arrazak.
 - b) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira, halaber, araubideak hala zehaztutako etxe-animaliak eta konpainiako animaliak eta, bereziki, Ekainak 1eko 101/2004 Dekretuko I. eta II. Eranskinean zehaztutako zakur-espezieak eta baita arautegi horretako 10.1.c) artikuluan zehazten direnak.



3.- Artikulua. KANPOAN UTZITAKOAK

Ordenantza honetatik kanpo geratzen dira eta berariazko araubidearekin arautura egongo dira:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Animalia basatien zaintza eta babesaren euren ingurune naturalean.
- d) Zezenketak.
- e) Abeltzaintza, hornidura-asmoekin gizendutako animalien hazkuntza gisa ulertuta.
- f) Animaliak ikerketarako eta beste xede zientifiko batzuetarako erabiltzea.

II. TITULUA: ANIMALIAK EDUKITZEA

I. KAPITULUA ARAU OROKORAK

4. Artikulua. ETXE-ANIMALIAK, ETXEKOTUTAKO ANIMALIAK ETA ANIMALIA BASATIAK


Etxe-animalkiak, etxekotutako animalkiak eta gatibu dauden animalia basatikiak etxebizitzatan eta herri eta hirietako lokaletan eduki ahal izango dira, baldin eta bizitokiaren ezaugarriak egokiak badira, eta herritarren higie, segurtasun, eta lasaitasun baldintzak betetzen badira.

5. Artikulua.- UKUILUETAKO, HAZTEGIETAKO ETA ESKORTAKO ANIMALIAK

- 1) Ukuiluko eta eskortako animalkiak etxe partikularretan, terrazetan, teilatu-lauetan, ganbaretan, garajeetan, trastelekuetan, sotoetan edo patioetan eduki ahal izango dira, baldin eta herritarren higie, segurtasun, eta lasaitasun baldintzak betetzen direla bermatzen duten instalazio egokiak baldin badaude.
- 2) Debekatuta dago etxe-animalkiak estabulazioan edo erdi-estabulazioan izatea parke eta lorategi publikoetan eta hirilur gisa kalifikatutako lursailetan.

6. Artikulua.- ANIMALIAK ETXEBIZITZA PARTIKULARRETAN

1. Oro har, baimenduta dago etxebizitza partikularretan etxe-animalkiak edo etxekotutakoak edukitzea, betiere, tokia eta instalazioak egokiak badira eta animalia-kopuruak higienari eta osasunari eragozten ez badie eta, halaber, arriskurik edo deserosotasunik eragiten ez badiete auzokideei eta gainerako pertsonari, edota animaliarik berari edo beste animalia batzuei.
2. Debekatuta dago balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, teilatu-lauetan, lorategietan edo beste edozein lokaletan animalkiak edukitzea, animalkiok auzokideei zein oinezkoari, usain, zikinkeria, ulu edo zaunkak direla-eta, eragozpen objektiboak eragiten dizkietenean.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

7. Artikulua ANIMALIA BASATIAK.


- 1) Partikularrek espazio pribatuetan animalia basatiak eduki ahal izateko, segurtasun eta higiene baldintzak bete behar dituzte eta ez dute inongo eragozpenik sortu behar. Jabeek berariazko dokumentazioa izan beharko dute eta auzokideentzako inolako arriskurik eta eragozpenik sortuko ez dutelako ardura bere gain hartuko dute.
- 2) Debekatuta dago aire zabaleko espazioetan edo herritarrei zabalik dauden lokaletan animalia basatiak edo animalia kaltegarri edo hezigaiztzat jotakoak aske uztea, hartarako apropos zehaztutako baldintzetatik edo berariaz prestatutako esparru, gunee edo parke zoologikoetatik kanpo.

8. Artikulua.- DEBEKUAK.

- 1) Zeharo debekatuta dago:
 - a) Elikagaiak ekoizten, saltzen, gordetzen, garraiatzen eta manipulatzaren diren lokaletan edo ibilgailuetan animaliak sartzeari eta geratzeari.
 - b) Ikuskizun publikoak egiten diren tokietan, igeritoki publikoetan, ikastetxeetan, kiroldegietan, osasun-zentroetan, haurrentzako jolastokietan eta antzekoetan animaliak sartzeari eta geratzeari.
- 2) Herritarrentzat irekita dauden establezimenduetako jabeek eskumena dute erabakitzeke animaliak bertan sartzeari eta egotea uzten duten ala ez, eta argi eta garbi adierazi beharko dute sarreran.
- 3) Toki komunitario pribatuetan, hau da, kultur elkarte, jolas elkarte, auzokideen komunitateen erabilerarako leku eta abarretan animaliak sartu eta egon ahalko dira, baldin eta erakunde horien araubideak horretarako bidea ematen badu.

9. Artikulua SALBUESPENAK.

- 1) Aurreko artikuluetan esandakoa gorabehera, itsu-txakurrarekin doazen ikusmen urriko pertsonak toki, ostatu, establezimendu, lokal eta garraio publikoetara sartu ahal izango dira. Aipatutako establezimendu horien artean, besteak beste, ospitale publiko zein pribatuak eta osasun-laguntzako zentroak daude.
- 2) Ikusmen urriko pertsonak, aurrez hala eskatu bazaio, animalia gida-txakurra dela egiaztatuko du eta dagozkion osasun baldintzak ondo betetzen dituela ere egiaztatu beharko du.
- 3) Gida-txakurrak gaixotasun zantzuak baditu, erasotzaile agertzen bada, garbi ez badago edo, oro bar, pertsonentzat arriskuren bat agertzen badu, ezin izango da aurreko artikuluan aipatutako tokietara sartu.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

10. Artikulua.- JABEEN BETEBEHAR OROKORRAK ETA ERANTZUKIZUNA

- 1) Jabeak edo edukitzaileak higiene- eta osasun-baldintza egokietan izango du animalia, babeserako instalazio aproposak lortuko dizkio, jan-edana eta albaitariaren osasun-laguntza emango dizkio, animaliak ariketa fisikoa egiteko aukera izango du, espezie eta arrazaren arabera beharrezkoak fisiologikoak eta etologikoak aseko ditu, eta animalia segurtasun baldintza aproposetan izango du, animalia berarentzat edo pertsonentzat eragozpen- edo arrisku-egoerarik gerta ez dadin.

Animaliaren jabeak izango dira hark sortutako kalte eta eragozpenen erantzule, Kode Zibilaren 1905. artikulua ezarritakoaren arabera.


- 2) Bereziki, animalien mantenurako gutxieneko baldintza hauek ezarri dira:
- a) Edateko uraz eta elikagai nahikoaz eta orekatuaz hornituta egongo da, nutrizio eta osasun maila egokia izan dezan.
 - b) Espazio, aireztapen, hezetasun, tenperatura, argitasun eta babes egokia eta beharrezkoak eskainiko dizkio, animaliak inolako sufrimendurik izan ez dezan eta bizitzeko premiei erantzuteko aukera edukitzeaz gain ongizateaz goza dezan.
 - c) Bizitokia garbi, desinfektatuta eta desintsektatuta egongo da, eta aldian-aldian gorotzak garbituko ditu.
 - d) Animaliak ezin izango dira balkoietan, terrazetan, teilatu-lauetan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, kamaroteetan edo beste edozein lokal edo hirilurretan egon, animaliak auzokideei zein oinezkoiei eragozpenak sortzen dizkietenean, edo toki horiek animalientzat, higiene, osasun eta ongizatearen ikuspegitik, egokiak ez direnean.
 - e) Animaliek beren ezaugarri etologikoei egokitzen zaien gutxieneko espazioa izan beharko dute, Gune Zoologikoen 81/2006 Dekretuak ezarritakoaren arabera.
 - f) Txakurrak ezingo dira bakarrik geratu lokal edo etxe barruan egun bat baino gehiago.
 - g) Erroldatuta edo erregistratuta dagoen animalia baten jabeak, edo beronek baimendutakoak, salaketa jarri behar du animalia galdu bada.
 - h) Txakurrak toki finko baten kateatuta daudenean, arazo barik iritsiko dira habiara edo edateko ura daukan ontziraino.

Animaliak edukitzea dela-eta, debekatuta dago:

- a) Animaliak sarbide zuzena izatea kale publikoan dauden iturrietara.
- b) Animaliak egotea umeentzako jolas-guneetan, hala nola, txin-txaunetan, txirristetan, e.a.

11. Artikulua.

1. Animaliak ibilgailu partikularretan garraiatzean, baldintza egokietan egingo da ikuspuntu etologiko edo fisiologikotik.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

2. Konpainiako animaliak igogailuetan jaisteari edo igotzeari dagokionez, horretarako baimena dutenean, animaliekin ez doazen pertsonak izango dute igogailua erabiltzeko lehentasuna beti.

12. Artikulua.- DEBEKU OROKORRAK.

Edonola ere, debekatuta dago.

1. Animaliei tratu txarra ematea edo, arrazoirik gabe, sufrimendua, mina edo larritasuna eragin diezaieketen ezein praktika eginaraztea.
2. Abandonatzea. 2) Luzaroagoan animalia izaten jarraitu nahi ez duten jabeek beste jaberena bat aurkitu beharko diote. Halaber, debekatuta dago Ordenantza honetan aipatzen den edozein espezieetako animalien gorpuak bertan behera uztea, bai bide publikoan bai udal mugartean, eta Udalari eman beharko zaio haren berri, halako egoeretan hartzen diren neurriak har ditzan.
3. Animaliei gorputz atalen bat moztea, albaitariak, beharizan funtzionalak medio edo arrazaren ezaugarriei eusteko, beharrezko ikusten duen kasuetan salbu.
4. Drogak edo botikak ematea, edo kalte fisikoak zein psikikoak eragin diezazkiekeen edozein manipulazio artifizial egitea, lehiaketa batean errendimendua handitzeko bada ere.
5. Bizitzeko behar duten janaria ez ematea edota higienaren eta osasunaren ikuspuntutik desagokiak diren tokietan edukitzea.
6. Euren izaerarako arrotzak edo desagokiak diren edo tratu laidogarria duten jokaerak eta jarrerak harraraztea.
7. Txakur eta oilar borrokak.
8. Animaliak bide publikoan hiltzea, guztiz derrigorrezkoa izan ezean.
9. 14 urtetik beherakoei edo gutxituei animaliak saldu edo ematea gurasoen edo arduradunen baimenik gabe.
10. Kanean animaliak saltzea, azoka edo merkatu baimenduetan izan ezik.
11. Animaliak Administrazioaren kontrolrik ez duten klinikei edo laborategiei saltzea.
12. Animaliak publizitatearen elementu erakargarri gisa, edo sari edo ordainsaritzat ematea, haien transakzioetik eratorritako negozio juridikoak direnean izan ezik.
13. Espezie babestuetako animaliak saltzea, eta dagokien berariazko legeriaren arabera eduki eta erakustea.
14. Ibilgailuak animalien ohiko bizitokia izatea. Era berean, barruan animalia bat duten ibilgailuak ez dira lau orduz baino gehiago aparkatuta egongo eta, udako hilabeteetan



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

edo bero egiten duen egunetan, etengabe itzalpean eta aireztapena duen toki batean egon beharko dute.

15. Bide publikoan eta orubeetan usoei eta jaberik gabeko animaliei jana ematea, hala txakurrak izan nola katuak edo beste edozein animalia izan.

II. KAPITULUA.- ANIMALIAK IDENTIFIKATZEA ETA ERROLDATZEA.

13. Artikulua

1) Txakurren jabeek derrigor identifikatu eta erroldatu behar dituzte txakurrak Durangoko Udalean, eta horretarako hilabete dute txakurra jaio edo erosten dutenetik, baldin eta Durangoko udalerrian bizi badira edo bertan 3 hilabete baino luzaago geratuko badira. Berdin egingo da bestelako edozein konpainiako animalia bada ere.

14. Artikulua

Identifikazioa derrigorrezkoa denean, horretarako gaitutako albaitari pribatu batek animalia eraren lepoaren ezker aldean mikrotxipa edo osagai mikroelektroniko bat jarriko du.

Hori Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektronikoaren erabilera arautzen duen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan eta ezar daitezkeen bestelako arauetan

III. KAPITULUA LAGUNTZAZKO ANIMALIEI BURUZKO XEDAPENAK.


15. Artikulua.- NOLA ERAMAN

Txakurrak lepokoarekin eta uhaletik helduta eraman beharko dira bide publikoetan eta pertsonak ibiltzen diren beste tokietan; ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko I. eta II. Eranskinetan zehaztutako eta 10.1.c) artikuluan izaera horretakotzat izendatutako txakurrek behar bezalako muturrekoa eraman beharko dute.

Debekatuta dago, oro har, bide publikoetan, parkeetan, espazio publikoetan edo pertsonak ibiltzen diren beste edozein tokitan animaliak aske egotea.

Alkatetzaren Dekretu bidez ezarriko da arriskutsuak izan daitezkeen txakurtzat hartzen ez diren txakurrak zein tokitan eta, egongo balitz, zein ordu-tartetan egon daitezkeen aske.

Edonola ere, jabeek edo edukizailleek zainzapean izan beharko dituzte txakurrak, pertsonen eta gainerako animaliei eragozpenik edo kalterik sor ez diezaieten, eta baita ondasun edo instalazio publikoak honda ez ditzaten ere. Horretarako, txakurra begi-bistan izan beharko dute uneoro eta, behar izanez gero, esku-hartu ahal izateko helmenean.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

16. Artikulua


Hiri-habitateko edo kontrol gabeko animalia espezieen ugalketak hala eskatzen duenean, udaleko agintariek animalia horien populazioa kontrolatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte.

17. Artikulua.- ERASOEN AURREAN NOLA JOKATU

- 1) Animalia batek norbait eraso izanaren salaketa jaso edo horren berri daukan administrazio-zerbitzuak eraso egin duen animalia edota haren jabea identifikatzen lagunduko duen datu oro bilduko du salatzailearengandik edo gertakarien jakinarazpena egin duenarengandik, eta berehala jarriko ditu datu horiek administrazio-espeditentzaz arduratuko den agintaritzaren eskuetan, alegia, txakurra erroldatuta dagoen eta, halakorik ezean, jabea bizi den udalerriko udalaren eskuetan, eta dokumentazio guztia udal horretara eramango du.
- 2) Erasotzerakoan hozka egin badu eta horrek lesioren bat sortu badu, erakunde eskudunak espeditentea ireki dela jakinaraziko die Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoko Unitateari eta Foru Aldundietako abere osasuneko zerbitzuei.
- 3) Lesioak eragin dituen txakurraren jabeak 24 ordu izango ditu bere aukerako albaitari ofizial edo gaitu batengana eramateko; animaliak, txakurra bada, behaketan egon beharko du hamalau egunez, baina egun-kopuru hori aldatu egin ahal izango da beste animalia batzuen kasuan edo ulean uneko baldintza epizootologikoei hala gomendatzen badute eta txosten tekniko batek hartarako arrazoiak ematen baditu. Epe hori igarota, bere borondatez egin ez badu, eskumena duen udaleko agintaritzak albaitariarengana eraman dezan eskatuko dio eta animaliak jasotzen dituen zentro batean sartzeko edota isolatzeko agindua eman ahal izango du. Errekerimendu hau ez betetzea arau-hauste larria izango da ekainaren 26ko - Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren 8/1997 Legeko 36.2.b.1 artikuluan jasotakoari jarraituz, eta han esandakoa bermatzeko kautelazko neurriak hartzearen kaltetan izan gabe. Edonola ere, egindako txostenaren edo egiaztagiraren kostua, egongo balitz, eta zentro batean sartzearen ondorioz sortutakoak ere txakurraren jabeak ordaindu beharko ditu. Behaketan jarri dela jakinaraziko dio espeditentea izapidetzeko eskumena duen udalari gertaera izan eta 72 orduko epea baino lehen. Animaliak jabe edo edukitzeaile jakinik izango ez balu, gertakarien berri jaso duen Administrazioa.
- 4) Albaitariak behaketa egin beharko du zoonosis-arriskua baztertu edo antzemateko, eta animalia izanaren izaerak ekar ditzakeen arriskuak ebaluatzeko. Emaizaren ziurtagiria/txostena igorri beharko du.

Behaketa amaitu ostean, jabeak albaitariaren ziurtagiria/txostena igorri beharko du espeditentearen izapidetzeaz arduratzen den udalera 48 orduko epean bertan txertatu ahal izateko. Udalak, era berean, albaitariaren ziurtagiriaren/txostenaren kopia igorriko du Bizkaiko Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzura eta Osasun Saileko Zaintza Epidemiologikoen Unitatera. Egindako behaketaren emaitzan osasun-arriskua eragin dezaketen egoerak antzemango balira, udal-agintaritzak luzapena eskatu edo zakurra leku itxi edo isolatu batean sartzeko eska dezake.

- 5) Erasoen ez baldin bada hozkadak eragindako lesiorik izan, zakurraren jabeak berak aukeratutako albaitari ofizialarengana edo gaituarengana eraman beharko du behaketa egin



diezaion, betiere, animaliaaren izaerak ekar lezakeen arriskua ebaluatzeko. Albaitariak kalkulatu beharko du horretarako behar duen denbora eta dagokion ziurtagiria/txostena igorriko du. Ondoren, jabeak espedientearen izapidetzean eskumena duen udalari igorri beharko dio.

18. Artikulua.- IKUSKARITZA ETA KONTROLA

- 1) Udaltzaingoak egingo du araudi honetan araututako materien ikuskaritza eta kontrola. Hark izango du salaketa kentzeko aukera eta hark jakinaraziko dio pertsona interesdunari eta eskumeneko erakundeari igorri ahal izango dio beharrezko neurriak har ditzan, ondoren hark, egoki iritziz gero, prozedura zigortzailea abiaraztea adostu dezan.
- 2) Arau-hausteeak delitua edo falta eragin dezaketen kasuan, espediente zigortzailea bideratzeko eskumeneko administrazio-erakundeak zigor jurisdikzioaren ezagupenean jarriko ditu gertaerak, prozedura zigortzailearekin jarraitzeari uko eginez ebazpen judizial irmoa egiten ez den bitartean, eta ordura arte etenda geratuko da preskripzio-epea.

III. TITULUA ZIGORREN ARAUBIDEA


19. artikulua.- ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

- 1) Arau-hauste administratiboak dira honako arau hauetan halakotzat jotako egiteak eta ez-egiteak: Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legea, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea eta berau garatzeko arauak, Kale-garbiketa eta hondakinak erretiratzeko Durangoko Udalaren Ordenantza, eta Ordenantza hau, Toki Administrazioa eraberritzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak gehitutako apirilaren 2ko 7/1985 Legeko XI. Tituluan xedatuari jarraikiz.
- 2) Ordenantza honetan aurrez ikusitako zigortzeko ahalmena gauzatzeko, dagokion administrazio-espedientea abiarazi eta instruitu beharko da, Titulu honetan eta Administrazioaren zigor-prozedura arautzen duten lege- edo arau-xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz.
- 3) Egileak baino ez dira izango arau-hausteen erantzule, eta halakotzat joko dira Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeko 9. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

I. KAPITULUA: ARAU HAUSTEAK.

20. artikulua.- ARAU HAUSTEEN SAILKAPENA

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-hausteak honela sailkatuko dira: arinak, larriak eta oso larriak. Horretarako, irizpide hauek hartuko dira aintzat: osasunerako arriskua, zabarkeria maila, kaltearen larritasun maila eta berrerortzea.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

21. artikulua.- ARAU HAUSTE ARINAK


Honako hauek joko dira arau-hauste arintzat:

- a. Ordenantza honetako betebeharrak ez betetzea, baldin eta higienean, edota herritarren segurtasunean edota lasaitasunean eragin larria ez badu.
- b. Laguntzako animaliak erroldako identifikaziorik gabe edukitzea, eraman beharrekoa dutenean.
- c. Animaliak behar adinako arreta eta zainketa jaso ezin duten lekuetan edukitzea.
- d. Animaliei tratu iraingarria ematea edo haien izaerari ez dagozkion jokaerak edo jarrerak edukiaraztea.
- e. Animaliak aske ibiltzea edota aske geratzea xede horretarako mugatu ez diren eremuetan, hurrengo artikuluko l) eta m) atalen kasuan izan ezik, horiek arau-hauste larriak dira eta.
- f. Animaliei elikagaiak ematea, baldin eta horrek eragozpenak, kalteak edo osasungaiztasun-fokuak sor baditzake.
- g. Ordenantza honetan aurrez ikusitako betebeharrak beste edozein modutan haustea, baldin eta arau-hauste larri edo oso larri gisa tipifikatua ez badago.

22. artikulua.- ARAU HAUSTE LARRIAK

Honako hauek joko dira arau-hauste larritzat:

- a. Animaliak behar beste ez elikatzea edo higiene eta osasunaren ikuspuntutik egokiak ez diren tokietan edukitzea.
- b. Antzutea, mozketak eta hilketak albaiariaren kontrolik gabe edo Animaliak babesteko Legeak eta berau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak eta betebeharrak alde betera utziz egitea.
- c. Txertoak edo derrigorrezko tratamenduak ez ematea.
- d. Animaliak baimenik gabe saltzea.
- e. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legean edo berau garatzeko arauetan animaliak aldi batez edukitzeko tokietarako, haztegiatarako edo salmenta-tokietarako ezarritako baldintzak eta betebeharrak ez betetzea.
- f. Animaliei tratu txarra ematea edo erasotzea, beharrezkoak ez diren oinazeak, kalteak edo mozketak eginez.
- g. Animaliei beharrezkoak ez diren oinaze edo kalteak sorraraz diezazkieketen substantziak ematea, zuzenean edo janarien bidez.



- h. Kalterik egin dezaketen animaliak zaintzen eta gordetzen behar hainbateko arretarik ez izatea.
- i. Animaliak nabariak eta larriak diren gaitzak eta minak izan eta albaitaritza-sorospen egokiak ez ematea.
- j. Beharrezko administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliei parte harraraztea.
- k. Txakurrak janariak egin, saldu, bildu, garraiatu edo erabiltzen diren lokaletan edo ibilgailuetan sartzea eta egotea.
- l. Txakurrak ikuskizun publikoetan, igeritoki publikoetan, osasun-lokaletan eta antzeko lekuetan sartzea eta egotea.
- m. Ebazpen irmoaren bidezko zigorra jaso duten hiru arau-hauste arin eginak izatea, zigor-espeditentea hasi aurreko bi urteetan.

23. artikulua.- ARAU HAUSTE OSO LARRIAK

Honako hauek joko dira arau-hauste oso larritzat:


- a. Animaliak erasoen bidez edo substantzia toxikoak emanez hiltzea.
- b. Laguntzako edo etxeko animalia bazter uztea. Orobat, bazter uztetzat hartuko da txakurtegian hartutako animaliez arduratzeari uko egitea, baldin eta dena delako herritarraren jabetza gisa identifikatu badira.
- c. Animalien arteko borrokak edo heriotza, lesioak edo sufrimendua eragin ditzaketen eta legez arautua ez dauden beste ikuskizun batzuk antolatzea eta egitea.
- d. Janari pozoituak bide eta leku publikoetan uztea.
- e. Ebazpen irmoaren bidezko zigorra jaso duten hiru arau-hauste larri eginak izatea, zigor-espeditentea hasi aurreko bi urteetan.

II. KAPITULUA: ZIGORRAK.

24. artikulua.- ZIGORREN ZENBATEKOA

Arestian adierazitako arau-haustek egiten badira, diruzko zigorrak ezarriko dira, koadro honetan aurrez ikusitakoari jarraituz:

ARAU HAUSTEAREN MOTA	ARRUNTA	
ARINAK	49,46 €-tik	494,63 €-ra bitartean
LARRI	494,63 €-tik	2.476,10 €-ra bitartean
OSO LARRIAK	2.476,10 €-tik	24.731,60 €-ra bitartean



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

Zigorren zenbatekoak urtero eta automatikoki gaurkotuko dira kontsumoko prezioen indizearen arabera, eta hori aurreko urteko zigorraren zenbatekoari ezarriko zaio.

25. artikulua.- NEURTZEKO IRIZPIDEAK

1. Isunen zenbatekoa neurtzeko eta aurreko artikuluko 2. atalean jasotzen diren zigorraren iraupena zehazteko, gorabehera hauek hartuko dira kontuan:

- a) Egindako arau-haustek gizarte edo osasun mailan izan duen garrantzia eta sortu dituen kalteak.
- b) Legez kanpoko irabazi-asmoa eta arau-haustea egindakoan lortutako ondasunen zenbatekoa.
- c) Arau-haustek behin eta berriro egitea.


Arau-haustea behin eta berriro egin dela esaten da lege honetan aurrez ikusten den zigorraren bat administrazio-bideko ebazpen irmoz ezarri bada aurretik, zigor-espedita hasi aurreko bost urteetan.

- d) Arau-haustea arintzeko zein astuntzeko eraginik izan dezakeen beste edozein gorabehera. Horretarako, bereziki kontuan hartuko dira umeen edo adimen-gaitasunik gabekoen aurrean egindako animalien kontrako indarkeriazko ekintzak.
2. Ahal den neurrian eta administrazio-arloaren berezitasunak eskatzen dituen ñabardurekin eta egokitzapenekin, antijuridikotasuna eta erruduntasuna kanpo uzteari buruzko zigor-arauak analogiaz ezarriko dira, eragin berak dituzten arlo horretako beste zenbait gorabehera nabarmen arreta eskaintzeari eragin gabe.
3. Ekintza berak arau desberdinetan zehaztuta dauden arau-hauste administratibo bi edo gehiago izan badaitezke, zenbatekorik handieneko zigorra jarriko da, eta zigortzeko ahalmena duen organoak izango du espedita instruitu eta ebazteko eskumena.

III. KAPITULUA: ZIGORTZEKO ESKUMENA.

26. artikulua.- ESKUMENA

1. Animaliak babesteko urriaren 29ko 6/93 Legean arautzen den foru-organoen zigortzeko eskumenari eragin gabe, Udalak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedatutakoaren inguruan egiten diren arau-haustek.
2. Alkate-Udalburutza organo eskuduna izango da arintzat tipifikatutako arau-hausteen ondorioak abiarazi eta ebazteko, indarrean den legeriak Udalarari ematen dizkion ahalmenen barruan.
3. Udalbatza Osoa organo eskuduna izango da larritzat tipifikatutako arau-haustek ebazteko.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

4. Foru-organo eskudunak zigortuko ditu oso larritzat tipifikatutako arau-hausteak.

IV. KAPITULUA: ZIGOR PROZEDURA.

27. artikulua.-

Ordenantza honetan aurrez ikusitako arau-hausteak zigortzeko prozedura bat etorriko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean, Zehapen-ahalmena erabiltzeko prozedura onesten duen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean araututako zigor-ahalmenaren printzipioekin.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Ordenantza honen aurka dagoen ordenantza edo xedapen oro.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau indarrean sartuko da Udalbatzak berau behin betiko onesteko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.